
Alfabetatzearen Nazioarteko Urtea



LETRAKIT, alfabetatze-kanpaina

Gurutz Larrañaga

UNESCOk Alfabetatzearen Nazioarteko urtea izendatu du 1990a. Egitasmo eta jardunaldi ugari antolatu eta burutu da munduan zehar arazo hau dela eta.

Alfabetatzegintzak euskal gizartean bere ezaugarri bereziak baditu ere, interesgarritzat jo da nazioarteko urte honek ematen duen aukeraz baliatzea eta euskal gizarteari alfabetatzearen inguruko egitasmo bat eskaintzea.

Egitasmoari *letrakit* izena eman zaio eta euskal alfabetatzegintzan aritu izan den zenbait pertsona eta talde bildu dira bertara, oraindik eginkizun dagoen alfabetatzegintzari bultzada berria eta eraginkorra emateko.

*Letrakit*en babesle nagusiak UNESCO, Euskaltzaindia eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saila dira.

*Letrakit*en aurkezpena Bilbon egin zen uztailaren 10ean. Bertan esandakoak balio dezake beste ezerk baino hobeto egitasmoaren nondik-norakoak adierazteko.

Hona hemen, hitzez-hitz, Jean Haritschelhar Euskaltzain-buruak aurkezpenean esanak:

> «Gaur, hizkuntza bateko semeek iraupenerako, beharrezkoa dute kultura, beharrezkoa bere hizkuntzan irakurtzen eta idazten jakitea.

Hala mintzo zen Rikardo Arregi, duela orai mende laurden bat gutxi gorabehera. Azpimarratu nahi nituzke erabili zituen bi hitz: *irakurtzen*, *idazten*. Bi hitz horietan datza alfabetatzea, lehen mailako eskolaren helburua zenbatzearekin batera.

Euskal Herriko lehen olerkariaren hitzen oihartzuna entzuten zukeen Rikardo Arregik lerro horiek idaztean, Eiheralarreko erretoraren oihua:

> Euskara, jalgi hadi kanpora.

Harek ere nahi zuen idatzia izan zadien euskara behar zuen «tornuia»-ren lortzeko «Sautrela» olerkian ziolarik:

> Euskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
> Bana haien lenguaiaz berze oro burlatzen;
> Zeren ezein eskripturan erideitzen ezpaitzen,
> Orai dute ikasiren nola gauza ona den.

Idatzia, inprimatua, beraz irakurtzeko on, euskaldun jendearen alfabetatzearen lehen urratsa 1545etik datorkigu.

UNESCO-k erabakirik urte hau, 1990garrena dela alfabetatzearen nazioarteko urtea, Euskaltzaindiaren babespean antolatzen den alfabetatze kanpaina idekitzen dugu gaur,

uztailaren 10ean, urte oso bat iraunen duen kanpaina.

Hain zuzen, 1969an, duela beraz 21 urte egunez egun, Euskaltzaindiko bilkurara zoalarik, berebil istripu batean zendu zen Rikardo Arregi alfabetatzearen sortzailea Euskal Herrian, ez zituela beteak oraindik 29 urte.

Gazte gazte, 1964ean 22 urte zituela, Euskaltzaindiak urgazletzat hartu zuen ikusirik haren izpirituaren ernetasuna, jadanik erakutsia baitzuen euskarari zion atxikimendua, bai idazkietan, bai obretan. Ez zen alfer egoiteko delakoetarik. Hain zuzen 1966ko urtarrilaren 28ko Euskaltzaindiaren bilkuran, Donostian, agertu zuen eskabide bat. Hona zer dion orduko agiriak:

> San Martin, Arregi eta Lasak firmatuta eskabide bat artu du alfabetizazio kanpaña bat egiteko. Lojendio, Mitxelena eta Erkiagak aldeko iritzia bialdu dute. Batzorderako San Martin, Aita Altuna, Lasa, Arregi ta Beobide izendatu dira.

Euskaltzaindiak sortu zuen beraz «Alfabetatze taldea» eta bultzatu zituen alfabetatze kanpainak urtero bai Rikardo Arregik, bai Patxi Altunak, bai Juan San Martinek kanpaina horietaz berri emaiten zutela Euskaltzaindian, dirua lortuz horretarako. Kanpainen eslogana izan zen: «Euskaldunak euskaraz, irakurri, itzegin, idatzi.» (Euskaltzaindiaren bilera 1967ko ekainaren 30ean)

1969ko urtarrilaren 12an, Baionan bildu zelarik Euskaltzaindia batzorde berri bat izendatu zen, buru zela Aingeru Irigaray eta idazkari Rikardo Arregi.

Sei hilabeteren buruan bizia galtzen zuen Rikardo Arregik. Gorputzak hilkorrak baldin badira ez dira hiltzen ideiak, bertzek segitzen dute batzuk hasi lana, hor daudela alfabetatze lanetan murgilduak A.E.K. eta HABE Euskal Herri guzian hedatzen dituztela sareak.

Orduz geroz aldatu dira gauzak, aldatu ere, zorionez giroa.

Lehenbiziko alfabetatzea, umeena, eskola eta ikastoletan egiten da orai, B eta D ereduen bitartez, dakigularik A eredua emeki emeki urritzera doala. Noiz agortuko zaigu osoki Euskal Herri guzian?

Alfabetatzea ez da bakarrik lehen mailan egiten. Bigarrenean hobeki lantzen da euskara, euskal kulturak dauzkan alorretan sartuz. Unibertsitatean erakasleak molda daitezke, hain beharrezkoak direnak euskara gero eta gehiago sartzeko eskola guzietan.

Alfabetatzearen helburua da ere euskaldunentzat euskararen lantzea, Euskal Herrian bizi diren euskotarrentzat edo erdaldunentzat euskararen ikastea egoki eta zuzen baita herriak daukan hizkuntza zaharraren jakitea.

Alfabetatzea da ere euskal literaturaren bultzatzea bere sail guzietan, olerki, elaberri, antzerki (pastorala barne) saikera eta abar... euskaldunek eta euskaldun umeek ukan dezaten iturri bat izpirituaren ernatzeko, gogoaren asetzeko.

Legeak hor daude, euskararen zuzenak zaintzen dituztenak, bainan denok dakigun bezala beharrezkoa baldin bada legea debaldekoa da ez baldin bada betetzen. Oroit gaiten zer idatzi zuen Axularrek duela orai 350 urte:

> Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.

Azken hitza utziko diot olerkariari. Iparraldekoa da, 1958an zendua, euskaltzain izana, Oxobi izen-ordekoa. Hain zuzen Axular idazleari eskaintzen dion olerkia holaxe bururatzen du.

Eskerrak Axular!
Bihi, bazka, indar,
Egun eta bihar
Badakigu nun har
Zu baitan...
Lagunak ez lokar!
Aditurik elkar,
Dugun euskara sar,
Eder, jori, azkar,
Orotan!!

Azken neurtitzetan badugu erakaspen eta agindu bat kontutan hartu behar duguna, Euskaltzaindiak errepikatzen duena, euskararen lehentasuna aldarrikatuz.

Lagunak ez lokar!
Aditurik elkar,
Dugun euskara sar,
Eder, jori, azkar,
Orotan!!

Atzoko Oxobiren oihua izan dadila gurea ere».

* * *

Ondoren, Kultura eta Turismo Sailburuaren hitzak eskaintzen dira, euskal alfabetatzearen inguruko zenbait gogoeta interesgarri azalduz:

«Orain arte hitz egin dutenek nahikoa esan dutela eta ez noa ni orain luzatzera. Gogoeta xume bat bakarrik egin nahi nuke eta agian ahazturik dagoen zerbait gogora ekarri.

Euskaraz alfabetatzeari bultzada bat emateko kanpaina bat prestatzeak argi ta garbi adierazten digu euskarak oraindik bide luzea egin behar duela normalkuntzara iritsi bitartean. Gaur aurkezten dugunaren atzetik, beraz, euskararen egoera larria dago.

Bestetik, berriz, eta gaur eguneko edozein gizarteari so eginez, berehala konturatuko ginateke alfabetatzea gizarte moderno guztietan eta edozein hizkuntzatan ari dela geroz eta beharrezkoago suertatzen, ikusentzunezko komunikabideen eraginez eta antzeko faktoreen eraginez.

Ez diot esan berri dudan hau nolabaiteko kontsolamendu bila nabilelako, euskaraz alfabetatzea zuzen planteatu ahal izateko beharrezkoa derizkiodalako baizik, eta, gaizki ez banago, hasiera-hasieratik euskaraz alfabetatu beharra honela ulertu zelako. Arazoa ez baita bakarrik euskaraz idazten eta irakurtzen ikastea, hori oso inportantea izanik. Arazoa zabalagoa eta sakonagoa da: euskararen kultur mamia sendotzea, haunditzea, zabaltzea eta euskaldunak kultoago egitea, eta hori gainera euskaraz.

Areago oraindik: alfabetatze mugimenduaren hasieratan norbaitek idatzi zuen bezala, alfabetatua izatea ez da irakurtzen eta idazten jakitea, eta lau eragiketak burutzeko gai izatea, helburu bezala pentsamendu mailan bereizketak egiten ikastea, klitxeak eta klasifikapen arruntak gainditzea, matizazioetarako gaitasuna lortzea. Eta hori noski euskaraz.

Beste zerbait gehiago oraindik: Rikardo Arregiren irudia dugu hemen. Bere bizitza laburrean herri honek burutu beharreko bilakaeraren lekuko eta laburpen izan zen: euskal esentzialismoarekin kritiko, gero euskaltzaletasuna askatasunean onartzeko eta defendatzeko; gizarte kapitalistarekin kritiko, marxismoa besarkatuz, gero hau gaindituz askatasunean ezker jarrera moderatu bat hartzeko; erlijioarekin kritiko, gero sinismenera itzultzeko askatasunean.

Aurretik emandako alfabetatzearen definizioari, orain R. Arregiren bilakaeran ikusten dena erantsi behar zaiola uste dut. Alfabetatzea ez baita irakurtzen eta idazten ikastea bakarrik, baizik eta pentsaeraren bilakaera bat eskatzen du, kultur maila handiago batera iristea, eta hori ez da gauza asko jakitera mugatzen. Honek batez ere eskatzen

duena zera da: tolerantzia, besteekiko begirunea, pentsamendu matizatua, estremismoak gainditzea, norberaren bilakaeraren «digestioa» egitea eta ez jarreratan puntatik puntara ibiltzea.

Norbaitek pentsa dezake guzti honen helburua euskararen beharrak ahaztu araztea dela eta bere larritasuna ezkutatzea. Guztiz alderantziz da, ordea: euskarak ez du etorkizunik, ezta alfabetatzeak zentzunik, euskarak kultur mami sendo eta zabal bat ez baldin badu, eta honen hildotik jarraituz, euskaraz esandako mundua eta kultura aberatsa, tolerantea, begirunezkoa, matizatua, «digestioa» egindakoa ez bada.

Hori da alfabetatzearen hasieratatik datorkiguna eta etorkizunerako gure egin behar duguna.

Alfabetatzea herrigintza eta kulturgintza bihurtzen zaigu zentzurik beteenean. Kanpaina hau honetarako lagungarri gerta dakigula».

* * *

Letrakit egitasmoak bi arlo landu nahi ditu bereziki. Bata, azkenengo 30 urteetan Euskal Herrian burutu den alfabetatzegintzaren ikerketa eta, bestea, euskal alfabetatzea bultzatzeko kanpaina.

EUSKAL ALFABETATZEGINTZAREN IKERKETA

*Letrakit*en helburuetako bat Euskal Herriko Alfabetatzearen historia burutzea da. Hori egin ahal izateko azterketa ikuspegi eta abiapuntu desberdinetatik molda daiteke: pedagogia, hizkuntzalaritza, antropologia, soziolinguistika eta baita giza-zientzietako beste adarretako ikuspegietatik ere.

Ikerketa-ahalegin honetan, nola edo hala azterkizun dugun prozesuan eskuhartu izan duen edozein talde profesionalek (irakasle, metodogile...) eta Unibertsitateko sailek parte har dezaten nahi da.

Hori horrela, *Letrakit*ek ondoren azaltzen diren Ikerketa eta Saiakera-bekak eskaintzen ditu.





Ikerketa eta saikera-bekak

• *Bekak, diru-kopuruak eta ezaugarriak*

1. Lau ikerketa-beka eta hiru saiakera-beka eskaintzen dira. Ikerketa-bekak unibertsitalgoari zuzentzen zaizkio eta saiakera-bekak irakaskuntza arloan ari diren profesionalei.
2. Lan-egitasmoak bakarka zein iker-taldeka aurkeztu ahal izango dira. Iker-talde guztiak arduradun baten zuzendaritzapean aurkeztu beharko dira.
3. Bi ikerketa-beka esperientziadun ikerlariei zuzenduko zaizkie eta 4.000.000 pezetatakoak izango dira.
4. Beste ikerketa-beka biak ikertzaile berriei zuzenduko zaizkie, eta 1.500.000 pezetatako diru-kopuruaz hornituko dira.
5. Hiru Saiakera-beka alfabetatze arloko profesionalei zuzenduko zaizkie eta 750.000 pezetatakoak dira.

• *Lanen egutegia*

1. Lan-egitasmoak aurkezteko epeak: Saiakerari buruzko lanak, 1990eko Irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira. Ikerketari buruzkoak, aldiz, 1990eko Azaroaren 30a baino lehen.
2. Beken esleipena: *Letrakit*ek izendatuko duen epaimahaiak honako epe hauetan esleituko ditu bekak: Saiakera-bekak, 1990eko Urriaren lean eta ikerketa-bekak, 1990eko Abenduaren 8an.

3. Epaimahaia: Honako kide hauek osotuko dute epai-mahaia:

   Epaimahaiburua: Euskaltzaindiaren ordezkaria.
   Epaimahaikideak:
   — *Letrakit*en ikerketa-arloko koordinatzailea.
   — HABEren Zuzendari Orokorra.
   — Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat.
   — Deustuko Unibertsitateko ordezkari bat.

4. Lanak aurkezteko epeak: Saiakera-lanak 1991eko Ekainaren 30a.
   Ikerketa-lanak, 1991eko Abenduaren 31a.

• *Lanen zabalkuntza*

*Letrakit*ek, 1991eko Uztailaren lehen astean, ihardunaldi batzu antolatuko ditu, non bekadun guztiek burututako lanak azalduko bait dituzte. Hauez gain, beste profesional batzuen lankidetza ere eskatuko da, beren ponentziak aurkez ditzaten. Behin lanak amaitu ondoren, berauen argitalpena aurrikusten da.

ERAKUSKETA IBILTARIA

Lehenago aipaturiko ikerketa-lanez gain, *Letrakit* delakoaren helburua da, euskal literaturak eta euskara idatziak euskal gizartean ospe-maila garrantzitsua lor dezaten, 1990-91 ikasturtean zehar ekintza desberdinak antolatzea. Euskara idatzia gutxitan erabiltzen da oraindik ere. Hau dela eta, kanpaina honen helburutzat hartzen da euskara idatziaren irudia (imajina) hobetzea.

Euskal gizartean euskal literatura oso ezezaguna da eta sorturiko literatur pertsonaiak ez daude herritarren artean zabaldurik. Horregatik bi arlo aurrikusten dira oinarri-oinarrian: alde batetik, euskal literaturak dituen idazleak ezagutarazi eta herritarren artean zabaltzea eta, bestetik, literatur pertsonaiak hedatzea.

Euskal gizartean literatura hedatzeko aukeratu den bidea erakusketa ibiltari handi bat da. Erakusketa hau zen-

bait herritatik pasatuko den egitura desmontagarria da. Erakusketa honetan euskara idatzia hiritarrei aurkeztu eta hurbildu nahi zaie modu erakargarriaz. Euskara irudi modernoz jantzi nahi da eta alfabetatzea bultzatu.

Ez da, inolaz ere, erakusketa hutsa; alderantziz, ikuslearekiko harreman aktiboa da helburua, erakusketaren barnean jokoen, lehiaketen eta abarren bidez... bisitarien parte hartzea bultzatuz.

Kanpaina erakusketaren inguruan biltzen bada ere, erakusketa heldu baino lehen, ekintza desberdinak antolatuko dira. Horrela, erakusketa bera aurreko egunetan egindako prestatze-ekintzen ondorio izango da.

Horretarako, talde guztien laguntza lortu nahi da: kultur eta kirol taldeak, enpresa-mundua, merkatariak, tokian tokiko administrazioa, etabar.

Ahalegin berezia egingo da bi talde hauen inguruan: O.H.O.ko ikasleak eta Irakaskuntza Ertainetakoak. Talde hauekin, eta irakaslegoarekin elkarlanean, ikastetxeetan bertan egingo da lan, material bereziak prestatuz. Halaber, gainontzeko herritarrengan edo egitura osoan isladatuko diren iharduerak antolatuko dira. O.H.O.rako eta Irakaskuntza Ertainetarako literaturari buruzko irakastunitateak prestatuko dira, erakusketa baino aste bat lehenago erabiltzeko. Bestalde, erakusketa dagoen herri guztietan, Euskadi Irrati Gaztearen bidez, zuzeneko irratsaioak (magazin-lehiaketak, musika-taldeen ekitaldiak...) antolatuko dira Irakaskuntza Ertainetako ikasleekin.

Beste talde batzuekin ere antolatuko dira zuzeneko irratsaioak honako irrati hauetan: Herri Irratia, Radio San Sebastian-Donostia irratia, etab.

Aipatu diren giza multzoez gain, ekonomi eta enpresa-munduarekin lan egiteko interes berezia dago. Euskal Herriko enpresa garrantzitsuenekin hitzarmenak burutzea aurrikusten da, kanpainan zuzenean parte har dezaten.

Erakusketaren egitura hiru modulotan banatuko da: umeena, gazteena eta orokorra.

• *Umeen moduloa*

Modulo honetan (5 eta 12 urte arteko haurrentzat) literatur pertsonaia klasikoak ezagutaraztea nahi da. Horretarako, Mogelen «Peru Abarka» nobela aukeratu da. Beraz, erabiliko diren pertsonaiak Peru Abarka eta Maisu Juan izango dira. Nobela honi buruzko komikia argitaratuko da eta ikastetxe guztietan banatuko, haurrek ezagutu eta landu dezaten. Honekin batera, ETBren bidez bi pertsonaia hauei buruzko marrazki bizidunak zabalduko dira. Era berean, pertsonaia berberak erabiliz, latex-panpinak eta eranskinak... egingo dira.

• *Gazteen moduloa*

Gazteen moduloan gaur egungo autoreak erakutsiko dira. Bertan, aukeratutako lau idazlek (Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Joseba Sarrionaindia) beren stand-a izango dute. Stand horretan, teknologia berriak erabiliko dira eta autoreei buruzko informazioa eta arte-mundua lotu nahi dira.

• *Modulo orokorra*

Modulo orokorra lau zatitan banatuko da.

Zati nagusiak emisio-programetarako balioko du eta diaporama eta bideoa izango ditu.

Beste zati bat Alfabetatzearen 30

urteei buruzko erakusketari eskainiko zaio. Zati honetan, 30 urtetako historian parte hartu duten pertsonei buruzko zehaztasunak emango dira. Rikardo Arregi izango da pertsonaia nagusia. Argazkiak eta grafikoak erabiliko dira batez ere.

Hirugarrengoan autore klasikoak aurkeztuko dira. Bost idazle nagusi aukeratu dira: Etxepare, Txomin Agirre, Orixe, Lauaxeta eta Lizardi. Autore hauen aurkezpena Euskal Herriko artista plastiko ospetsuen eskutik egin nahi da, autore bakoitzari dagokion stand-a, artista batek burutuz. Bost autore hauez gain, beste autoreei buruzko informazioa ere emango da.

Laugarren zatia «Herriko txokoa» izango da. Txoko honen bitartez hiru helburu lortu nahi dira: herri bakoitzeko alfabetatze-historia txikia aurkeztea; oso ospetsuak izan gabe, herrian bertan jaio diren autoreak aipatzea eta bisitarien topalekua izatea. Herriko txoko hau desberdina izango da herritik herrira.

Euskal Herriko bost hiriburutan eta beste 24 herritan erakutsiko da *Letrakit* erakusketa ibiltaria. Iparraldean, Baiona, Maule eta Donibane Garazin erakutsiko da. Nafarroan, Iruñea, Altsasu, Lizarra eta Elizondon. Araban, Gasteiz, Laudio eta Bastida bisitatuko ditu. Gipuzkoan, Donostia, Eibar, Arrasate, Beasain, Tolosa, Zarautz, Irun, Loiola eta Urretxu. Bizkaian, Bilbo, Gernika, Mungia, Getxo, Ondarroa, Durango, Zornotza, Galdakao, Barakaldo eta Igorre.

Erakusketaren iraupena lau egunetakoa izango da herri bakoitzean (ostegun, ostiral, larunbat eta igandea).

Letrakit egitasmoa euskal alfabetatzerako onuragarri gerta dadila.

«LETRAKIT», CAMPAÑA DE ALFABETIZACION

Con motivo de la designación de este año 1990 como el Año Internacional de la Educación por parte de la UNESCO, se pone en marcha el proyecto «Letrakit» con la idea de adecuar los objetivos de este Año Internacional a la situación del euskara y a las necesidades de los hablantes de esta lengua.

El proyecto se centrará especialmente en dos áreas fundamentales: la investigación acerca de la alfabetización en el Pueblo Vasco y la difusión de la literatura vasca.

Para atender al primer campo, «Letrakit» ofrece becas de investigación y ensayo (4 y 3 respectivamente), a fin de promover el análisis de la historia de la alfabetización en vasco.

En cuanto al segundo, se montará una exposición itinerante con el objeto de que la literatura vasca y el euskara escrito cobren en la sociedad vasca la importancia que se merece. La exposición se trasladará de pueblo en pueblo para así dar a conocer, acercándolos a la gente, tanto a los literatos que escribieron en euskara como a los protagonistas de sus obras.

«LETRAKIT», LITERACY CAMPAIGN

In connection with the designation of the year 1990 as International Education Year by UNESCO, the project «Letrakit» has been set up with the aim of adapting the objectives of International Education Year to the situation of Basque and the needs of Basque speakers.

The project focuses primarily in two fundamental areas: research into the teaching of literacy among the Basque people and the circulation of Basque literature.

In response to the first area, «Letrakit» is offering grants for research and for essays (4 and 3 respectively), with the aim of promoting the analysis of the history of teaching literacy in Basque.

With regard to the second, a travelling exhibition will be set up in order that Basque literature and written Basque receive the notice they deserve in Basque society. The exhibition will move from town to town in order to make both those who write in Basque and their characters better known to everyone by bringing them into close contact.

«LETRAKIT», CAMPAGNE D'ALPHABETISATION

A l'occasion de la désignation, par l'UNESCO, de cette année 1.990 comme l'Année Internationale de l'Education, on met en route le projet «Letrakit», dans l'intention d'adapter les objectifs de cette Année Internationale à la situation de la langue basque et aux besoins des bascophones.

Le projet sera axé, spécialement, sur deux domaines fondamentaux: la recherche sur l'alphabétisation au Pays Basque et la diffusion de la littérature basque.

En ce qui concerne l'alphabétisation, «Letrakit» offre des bourses d'investigation et d'essai (4 et 3 respectivement) afin de promouvoir l'analyse de l'histoire de l'alphabétisation en basque.

Quand au second, on va monter une exposition itinérante pour que la littérature et la langue basque écrite prennent l'importance qu'elles méritent. L'exposition se déplacera de ville en ville pour faire connaître partout, en les approchant des gens, aussi bien les littérateurs qui écrivirent en basque que les héros de leurs ouvrages.